

Zallako Hiri Antolamenduko Plan Orokorra

## Parte-hartze Txostena



# Hiri Antolamenduko Plan Orokorra

## **AURKIBIDEA**

|                               |           |
|-------------------------------|-----------|
| <b>1/ SAIOEN DISEINUA</b>     | <b>3</b>  |
| <b>2/ PARTE-HARTZE DATUAK</b> | <b>10</b> |
| <b>3/ ONDORIO OROKORRAK</b>   | <b>11</b> |



## SAIOEN DISEINUA.

- **Saioan parte hartuko dute:** Erredakzio Taldea + Hiritik At
- **Saioa dinamizatu du:** Hiritik At
- **Saioaren iraupena:** 2 ordu

- **Helburuak:**

Gaikako tailerrak eginez, HAPOaren diagnostiko-dokumentua aberastuko duen eztabaida bultzatu eta herritarrek udalerrriaren etorkizunari lotutako funtsezko ideiei buruz duten iritzia jasotzea. Ideia horiek Aurrerapen fasean aztertu eta garatuko dira. Erredakzio taldeak egindako dibulgazio-dokumentuan oinarrituta, saioaren helburua izango da hainbat gairi buruzko iritzia baliozkotzea, zalantzan jartzea edo euron gaineko hausnarketak eragitea. Gai horiek honakoak izango dira, besteak beste, mugikortasuna, etxebizitza, jarduera ekonomikoa eta paisaia, eta, batez ere, herritarrek iritzi-emateko oinarritzat erabiliko den aurretiazko txostenean identifikatutako gaietan jarriko da fokua. Horretarako, interes handieneko gaiak identifikatuko dira, edo polarizaziorik handiena eragiten dutenak, helburua eztabaida sortzea eta horri buruzko iritzia mahai gainean jartzea delako. Landuko diren gaietara eta bizilagunen gizarte-errealitatera egokituko da metodologia. Parte-hartze kualitatiboa bilatzen saiatuko gara.

- **Parte-hartzeko deialdia:**

Udalerriko kolektiboak eta taldeak identifikatuko dira (ahal dela dagoeneko eratu daudenak), eta berriazko deialdia egingo da parte har dezaten. Saio irekietan parte hartzeko zailtasun handiena duten pertsonekin ahalegin berezia egingo da, beren narratiba eta diskurtsoa presente egon daitezen; hain zuzen ere, adinekoak, mugitzeko arazoak dituztenak, hizkuntza menderatzen ez dutenak... edo parte hartzeko beste oztopo batzuk dituztenak.

- **Saioetan landuko den tematika:**

Saio guztiek honako galdera hau izango dute gidalerro:

**Zallan,**

**nola lor dezakegu denontzako bizigarriagoa izango den etorkizuna?**

Gai bakoitzari buruzko eztabaida eta elkarrizketa aipatutako galdera horretan oinarrituta egin beharko dira, fokua Zallaren etorkizunean jarrita beti; eta, aldi berean, genero-ikuspegia eta dauden beharrez guztiak kontuan hartuta, ingurumenaren aldetik Zalla herri jasangarri bilakatzeko nahia ahaztu barik .

Saio bakoitzean landuko diren gai zehatzak:

☐ 1.saioan: mugikortasuna eta azpiegiturak, espazio publikoa eta ekipamenduak, eta paisaia eta landa eremuak.

☐ 2.saioan: etxebizitza, jarduera ekonomikoak, eta hirigintza garapenak.

- **Saioen egitura:**

(15') Sarrera: saioaren aurkezpena, prozesu parte-hartzailearen testuingurua, parte hartzeko mugarren azalpena eta parte hartzeko bideak.

(60') Mahaikako saioa (tematikoak): 20' mahai bakoitzak bere gaia lantzeko.

(20') Bateratze-saioa: mahai bakoitzean jasotako ondorioak bateratzeko.

(05') Saioaren amaiera.

- **Metodologia:**

World Kafea izeneko metodologia erabiliko da saioetan. Elkarrizketa kolaboratiboa oinarritzat duen sormen-prozesua da World Kafea. Talde txikietan jarrita, bertaratuek beraien ezagupenak eta ideiak partekatuko dituzte.

Saioetan parte-hartzaileak talde txikietan batuko dira. Talde guztietan landuko dituzte saio bakoitzerako proposatutako gai guztiak; gaiak mahairik mahai mugituko dira, horrela, parte-hartzaileek ez dute mahai batetik bestera joan-etorrietan ibili behar. Txandakatze horren helburuak hauek dira: aurreko taldeak esandakoa aberasten joatea, talde txikietan gai komunak aztertzea eta elkar-elikatzea..

Hainbat galderak proposatuko dira gai bakoitzaren inguruan hausnartzeko eta, horrela, parte-hartzaileek herriaren etorkizuna zelan irudikatzen duten jakiteko. Egindako ekarpenak, hausnarketak eta emandako informazioa antolatzeko, AMIA bat osatuko da. Horretara, ideiak taula horretan batuta geratuko dira. Metodo hori erabiltzea garrantzitsua da datuak behar bezala jasota gera daitezen.

AMIA taulaz gain eta landuko diren gai inguruko gakoak biltzen dituzten laguntza-orriez aparte, talde bakoitzaren mahai gainean udalerrriaren mapa bat jarriko da, parte-hartzaileek ekarpen georreferentziatuak egiteko aukera izan dezaten.

Ondorengo lerroetan azaltzen dira, saioan erabiliko diren teknika metodologiko biak:

> **WORLD KAFEA:**

Zer da World Kafea? Garrantzizko gaien inguruan elkarrizketa-sare bizia sortzeko teknika bat. Sormen-prozesua da, lankidetzako elkarrizketa sortzeko bide dena, non ezagutza partekatzen den eta ekintzarako aukerak sortzen diren tamaina guztietako taldeetan.

World Kafe metodologia (munduko kafea) giza elkarrizketa prozesu interesgarria eta hurbila da. Pertsona talde bati galdera astunei buruz hitz egiteko aukera ematen dio, ideia,



akordio eta ekintza-bide sortzaile eta berritzaileak sortzeko, kafetegi baten antzeko giro atsegin eta adiskidetsuan.

Mahai batzuk jartzeko espazio zabala aukeratzen da; parte hartzen duten pertsonen kopuruaren arabera mahai gehiago beharko dira. Galdera esanguratsu bat aukeratzen da, parte-hartzaileentzat garrantzitsua dena eta hainbat ikuspegi aztertzea eskatzen duena. Elkarrizketa-txandak ezartzen dira, 20 eta 30 minutukoak, interes komuneko gaiei buruz. Pertsonak mahaiz aldatzen dira txandetan zehar; horretara, denbora-tarte laburrean konexio-sare zabala sortzen da, horixe da-eta sustatu beharrekoa. Kasu honetan, jendea mahai batetik bestera mugitu beharrean, gaiak izango dira mahairik mahai trukatu direnak.

Txanda horien ondoren, talde osoa batuko da iritziak denen artean partekatzeko. Parte-hartzaileei eskatzen zaie, bereaien kafe-ko txandetatik atera diren ideia nagusiak zeintzuk izan diren aztertzen minutu batzuk eman ditzatela, beraientzat esanahi handiena dutenak eta elkarrizketa horietatik erator daitezkeen ideiak foro irekian plazaratu ditzaten.

**> AMIA:**

Zer da AMIA? Proiektu bati buruzko ebaluazioa egiteko teknika da. Teknika hori erabiltzen da proiektu jakin baten inguruan hainbat arlotako informazioa izan nahi dugunean, oraina eta etorkizuneko proiektzioa ebaluatzeko.

Ahulguneak eta Mehatxuak jatorri endogenoko eta exogenoko alde negatiboak dira, hurrenez hurren; hau da, proiektuaren mugen edo oztopoen adierazle dira, lurraldearen elementu batean edo batzuetan proiektu hori garatzeko gaitasuna geldiarazten dutenak.

Potentzialtasunei dagokionez, Indarguneak jatorri endogenoko eta positiboko aldeak direla esaten dugu, eta aukerek jatorri exogenoa dutela, eta lurralde-baliabideen balorizazio edo aprobetxamendutik datozela.

Elkarrizketa sortzen laguntzeko, landu beharreko gai bakoitzean Zallak dituen indarguneak eta ahulguneak identifikatzen lagun dezaketen hainbat gai planteatu dira.

**• Indarguneak detektatzeko funtsezko galdera:**

Zeintzuk dira Zallak dituen INDARGUNEAK *mugikortasunari eta azpiegiturei* dagokionez, denontzako etorkizun bizigarriago bat lortzeko?

**• Ahulguneak detektatzeko funtsezko galdera:**

Zeintzuk dira Zallak dituen AHULGUNEAK *mugikortasunari eta azpiegiturei* dagokionez, denontzako etorkizun bizigarriago bat lortzeko?

**• Mehatxuak detektatzeko funtsezko galdera:**

Zeintzuk dira Zallak dituen MEHATXUAK *mugikortasunari eta azpiegiturei* dagokionez, denontzako etorkizun bizigarriago bat lortzeko?

**• Aukerak detektatzeko funtsezko galdera:**

Zeintzuk dira Zallak dituen AUKERAK *mugikortasunari eta azpiegiturei* dagokionez, denontzako etorkizun bizigarriago bat lortzeko?

• **MUGIKORTASUNA ETA APIEGITURAK** gaia lantzeko ideia gakoak:

**Azpiegiturak**

- > Eskualdeko beste herriekiko konexioa.
- > Urretxurekiko konexioa
- > Tren konexioa
- > Udallerriaren bide perimetralak

**Mugikortasuna**

- > Oinezkoen ibilbideak
- > Bidegorriak
- > Garraio publikoa: autobusa eta trena
- > Aparkalekuak
- > 30 km/h-ko eremuak
- > Trafikoa debekatuta duten kaleak
- > Oinezkoek eta ibilgailuek partekatutako kaleak
- > Nolakoak da elkarbitzita pertsona, bizikleta, kotxe, motor, autobus eta gainerakoen artean?

• **ESPAZIO PUBLIKOA ETA EKIPAMENDUAK** gaia lantzeko ideia gakoak:

**Espazio berdeak**

- > Espazio berdeen sarea
- > Herrian berdeguneak txertatzea
- > Nolakoak izan beharko lukete?  
Tamaina/Kokapena/Erabilera/Izaera/Ibilbideak

**Espazio publikoa**

- > Espazio publikoen sarea
- > Gertuko espazio publikoak
- > Nolakoak izan beharko lukete?  
Tamaina/Kokapena/Erabilera/Izaera/Ibilbideak

**Ekipamenduak**

- > Zein ekipamendu mota behar da Zallan?
- > Eskualde mailako zein ekipamendu kokatu beharko litzateke Zallan?
- > Nolakoak izan beharko lukete?  
Tamaina/Kokapena/Erabilera/Ibilbideak

• **PAISAIA ETA LANDA EREMUAK** gaia lantzeko ideia gakoak:

**Landa eremuak**

- > Zer beharizan dute gaur egun landa eremuek eguneroko bizimoduan?
- > Zer nolako bilakaera aurreikusten da?
- > Zer behar berri sortuko dira landa eremuan belaunaldi aldaketari begira?
- > Badago landa eremuari lotutako erabilera berriren batzeko beharizanik?
- > Auzoen arteko lotura
- > Herrigunearekiko lotura
- > Natur ibilbideak

**Paisaia**

- > Babes eremuak
  - Basoak
  - Eraikinak
  - Iturburuak
  - Errekak
- > Hondakinen kudeaketa

• **ETXEBIZITZA gaia lantzeko ideia gakoak:**

- > Zein beharrizan daude Zallan etxebizitzari lotuta?
- > Etorkizunean zer-nolako bilakaera aurreikusten da etxebizitza arloan?
- > Etorkizunean gazteen beharrizanei erantzuteko zein neurri hartu beharko lirateke?
- > Etorkizunean nagusien beharrizanei erantzuteko zein neurri hartu beharko lirateke?
- > Etorkizunean giza-talde zaugarrienen beharrizanei erantzuteko zein neurri hartu beharko lirateke?
- > Imajinatzen duzu gaur egun ez dagoen etxebizitza aukerarik? Zein tipologiakoa?
- > Zelan imajinatzen duzu landa eremuko etxebizitzaren bilakaera?
- > Uholdeak direla eta, zein beharrizan daude etxebizitzaren ikuspegitik?
- > Uholdeak eta etxebizitzak direla eta, zein neurri hartu beharko lirateke etorkizunera begira?
- > Eraikinen zaharberritzea
- > Etxebizitza hutsak

• **JARDUERA EKONOMIKOAK gaia lantzeko ideia gakoak:**

- > Nola baloratzen duzu gaur egun Zallak daukan ehun ekonomikoa?
  - Komertzioak
  - Zerbitzuak
  - Lehen sektorea
  - Landa eremuari lotutako aktibitate ekonomikoak
  - Industria

> **Etorkizunera begira** nola imajinatzen duzu Zallak daukan ehun ekonomikoa?

- Komertzioak
- Zerbitzuak
- Lehen sektorea
- Landa eremuari lotutako aktibitate ekonomikoak
- Industria

• **HIRIGINTZA GARAPENAK gaia lantzeko ideia gakoak:**

- > Gaur egun dauden garapen mota guztiak (etxebizitzak, zerbitzuak, aktibitate ekonomikoa...) nola baloratzen dituzu?
- > Nolako da inguruarekin eta herritarrekin duten harremana?
- > Lurraren artifizializazioari dagokionez, nola ikusten duzu etorkizuna?
  
- > Gaur egun dauden etxebizitza garapenak nola baloratzen dituzu?
- > Etorkizunean etxebizitza garapenak egin beharko lirateke? Egingo balira, nolakoak imajinatzen dituzu? Egitekotan, zein eremutan aurreikusten dituzu?
  
- > Gaur egun dauden zerbitzuei (publikoak eta pribatuak) lotutako garapenak nola baloratzen dituzu?
- > Etorkizunean zerbitzuei (publikoak eta pribatuak) lotutako garapenak egin beharko lirateke? Egingo balira, nolakoak imajinatzen dituzu? Egitekotan, zein eremutan aurreikusten dituzu?
  
- > Gaur egun dauden aktibitate ekonomikoei lotutako garapenak nola baloratzen dituzu?
- > Etorkizunean aktibitate ekonomikoei lotutako garapenak egin beharko lirateke? Egingo balira, nolakoak imajinatzen dituzu? Egitekotan, zein eremutan aurreikusten dituzu?
  
- > Zein eremu babestu beharko litzateke garapenetik?

**Informazioa biltzeko taula:**

|  |  |
|--|--|
| <b>1/</b> <b>ETXEBIZITZA</b><br><b>VIVIENDA</b>  |  |
| <small>Zeinok dira Zuhai etxean <b>AHULGUNEAK</b> (DEBILDADES) egoteak, eragozteko erabakien bilgintza bat hartzeko? (¿Cuáles son las <b>DEBILDADES</b> que tiene Zuhai en su cuenta a vivienda para conseguir un futuro más habitable para todos los presentes?)</small>  | <small>Zeinok dira Zuhai etxean <b>MEHATXUAK</b> (AMENAZAS) egoteak, eragozteko erabakien bilgintza bat hartzeko? (¿Cuáles son las <b>AMENAZAS</b> que tiene Zuhai en su cuenta a vivienda para conseguir un futuro más habitable para todos los presentes?)</small>         |
| <b>AHULGUNEAK</b>  | <b>MEHATXUAK</b>   |
| <small>Zeinok dira Zuhai etxean <b>INDARGUNEAK</b> (FORTALEZAS) egoteak, eragozteko erabakien bilgintza bat hartzeko? (¿Cuáles son las <b>FORTALEZAS</b> que tiene Zuhai en su cuenta a vivienda para conseguir un futuro más habitable para todos los presentes?)</small> | <small>Zeinok dira Zuhai etxean <b>AUKERAK</b> (OPORTUNIDADES) egoteak, eragozteko erabakien bilgintza bat hartzeko? (¿Cuáles son las <b>OPORTUNIDADES</b> que tiene Zuhai en su cuenta a vivienda para conseguir un futuro más habitable para todos los presentes?)</small> |
| <b>INDARGUNEAK</b>   | <b>AUKERAK</b>   |

Saioaren amaieran, gaien arabeko bateratze-lana egingo da, eta 20 minutuko denbora-tartea emango da horretarako. Garrantzitsua iruditzen zaigu bateratze-lan horri kalitatezko denbora ematea, une horretan azalduko baitira argien desadostasunik handiena eragiten duten puntuak. Bateratzean sortzen diren gaiak hurrengo taulan jasoko dira, mantendu nahi diren eta hobetu daitezkeen ideien ikuspegia izateko.

**Bateratze-saioan emandako informazioa biltzeko taula:**

|   |  |
|---|--|
| <b>1/</b> <b>ETXEBIZITZA</b><br><b>VIVIENDA</b> |  |
| <small><b>MANTENDU</b>   MANTENER</small>       | <small><b>HOBETU</b>   MEJORAR</small> |
| <b>MANTENDU</b>                                 | <b>HOBETU</b>                          |

• **Genero ikuspegia, zehar-lerro modura aplikatuta**

Parte-hartzea, generoaren ikuspegitik, ezinbesteko praktika da. Izan ere, hirigintza arlora emakumeen bizi-esperientzia ekartzen du eta, gainera, andre askok egunerokoan duten egitekoa ikusaraztea ahalbidetzen du. Erronka handia da partaidetza-prozesu inklusiboak, integratuak eta lotesleak egitea, ahots ugari eta anitzek pisua izan dezaten. Komeni da parte hartzeko kanal eraginkorrak irekitzea espazio publikoaren, zuzkidura-ekipamenduaren eta abarren esparruan elementuak edo espazioak definitzeko eta diseinatzeko.



Hirigintzari buruzko begirada feministak zera esan nahi du: hiri-paisaia esku hartu nahi bada, parekatu egin behar direla produkzio-mundutik eratorritako eskakizunak eta erreprodukzio-munduaren eskaerak. Hau da, haurren, adinekoen edo dibertsitate funtzionala duten pertsonen premiak erdigunean jarri behar direla, baina ez subjektu homogeen gisa, baizik eta beste aldagai batzuk kontuan hartuta, hala nola, adina, arraza edo sexu-orientazioa.

Espazio publikoari dagokionez, kontuan hartu beharko dira sarbideak, irisgarritasuna, materialak, altzariak, landaredia, argiztapena eta eguzkitzea, ura... eta pertsona guztientzako espazio publiko atseginak eta kalitatekoak sortzen laguntzen duten gainerako alderdiak, gogoan izanda mendeko pertsonen autonomia eta zaintzaileen askatasuna (gehienak emakumeak) sustatu behar direla.

Espazio publikoak erabiltzeko autonomia eta askatasun gisa ulertu behar da segurtasun-sentsazioa. Garrantzi handiko aldagaia da, pertsonen mugimenduak baldintzatzen dituen; hala, espazio publikoak etsai-girokoak eta besteenak direla iritziz gero, utzi egiten zaio espazio horiek erabiltzeari eguneroko bizitzako jarduerak garatzeko. Beraz, segurtasun-pertzepzioa hobetzeko neurriak hartu beharko dira, espazio publikoan oztupo arkitektonikoak ezabatuz; adibidez, garraio publikoaren geltokiak eraikitze material gardenak erabiliz. Era berean, eraikuntzatik segurtasun-sentsazio handiagoa bermatzeko aldaketak ere sar daitezke; esate baterako, balkoiak, terrazak edo begiratokiak ugaritzeak kalean gertatzen dena hobeto kontrolatzeko bidea ematen du, eta, beraz, ikusiak izaten laguntzen dute. Beste ekimen bat eraikinetako beheko solairuetan merkataritza edo ekipamenduak kokatzea da.

Irisgarritasunari eta, oro har, mugikortasunari dagokienez, arreta berezia jarri behar da oinezkoentzako loturetan eta, batez ere, ibilgailuek oinezkoen ibilbideekin bat egiten duten tokietan, hala nola: garaje-irteerak, aparkalekuetarako sarbideak, bidegurutzak, bideak gurutzatzeko pasabideak eta autobus-geltokiak. Oinezkoentzako ibilbideak seguruak izan daitezen, gomendagarria da honakoak kontuan izatea: errepideetan dauden oinezkoen pasabideak, zoladura mota, oinezkoentzako sarbideak... Irisgarritasun unibertsalaren, segurtasunaren eta garraio publikoaren garapenaren baldintzak hobetzeko jarduerak emakumeen mugikortasuna sustatzen dute, emakumeak baitira garraio publikoaren erabiltzaile nagusiak mugikortasun jasangarriaren esparruan. Halaber, gomendatzen da azterlan zehatzagoa egitea autobus-geltokien irisgarritasunari eta espazio publikoarekiko loturari buruz, bai eta iristeko zailtasun handienak dituzten eremuekiko konexioa aztertzea ere, hala nola industrialdeekiko konexioa; izan ere, garraio publikoaren erabilera sustatzearekin batera, erabilera unibertsal bihurtzen lagunduko duten neurriak hartu behar dira-eta.

Azkenik, baina ez horregatik garrantzi gutxiagokoa, aipatu behar da ezinbesteko praktika dela generoaren ikuspegitik parte-hartzea, horixe baita bizi-esperientzia hirigintza-metodora hurbiltzea ahalbideratzen duena eta, era berean, emakumezko askok egunerokoetan duten zeregina bistaratu dezakeena. Erronka handia da partaidetza-prozesu inklusiboak, integratuak eta lotesleak egitea, ahots ugariak eta anitzek pisua izan dezaten. Komeni da parte hartzeko kanal eraginkorrak irekitzea espazio publikoaren, zuzkidura-ekipamenduaren eta abarren esparruko elementu edo espazioen definizioan eta diseinuan.

# 2/

## PARTE HARTZE DATUAK.

Guztira, 14 lagunek hartu dute parte bi saioetan. Bi saioetan, proposatutako metodologia aldatu behar izan da, eta elkarrizketa-mahai independenteak sortu dira, ezinezkoa izan baita world cafe metodologia aurrera eramatea, bertaratze-faltagatik. HAPOa bezalako dokumentu estrategiko bati begira, Zallak duen herritar kopurua kontuan izanda, kuantitatiboki partaidetza-maila txikia izan da. Aipatu behar da web orriaren bidez online parte hartzeko aukera dagoela, eta bide horrek aurrez aurreko prozesuarekin bat egiten duela, bertaraterik izan ez duenari parte hartzeko aukera emanez.

### 1.saioa:

Eguna: urriak 4, asteartea


Parte-hartzaile kopurua: 8

### 2.saioa:


Eguna: urriak 10, astelehena

Parte-hartzaile kopurua: 6

Generoari dagokionez, gizonen parte-hartzea emakumeena baino handiagoa izan da: % 78,8 eta % 21,4, hurrenez hurren. Adin-tartearen inguruko ordezkariari dagokionez, parte-hartzaileen % 35,7 46-60 urte bitartekoak dira, eta 61-75 urte bitarteko biztanleria-tartean proportzio berean parte hartu dute, % 35,7ko parte-hartzearekin. Ondoren, 31-46 bitarteko adina duten pertsonak daude, % 28,6ko parte-hartzearekin. >18 eta 18-30 adin-tarteetako parte-hartze maila nulua izan da; beraz, udalerriko gazteenak erakartzeko kanal hurbilagoak erabili behar direla ondorioztatzen da, baita 75 urtetik gorakoentzako kanal eskuragarriagoak ere. Oro har, parte-hartze kuantitatiboa nahiko txikia izan da, eta, beraz, parte-hartzea sustatu beharko da aurrerapen-faseari begira.



● Emakumezkoa / Mujer  
● Gizonezkoa / Hombre  
● Ez bitarra/ No binario



● >18  
● 18-30  
● 31-45  
● 46-60  
● 61-75  
● 75<

# 3/

## ONDORIO OROKORRAK.

Ondoren, gaiaren arabera ezagutuko ditugu herritarren ekarpenak eta hausnarketak, eta horiei buruzko ondorio orokorrak jasoko ditugu. Hor batutako guztiak estrategia orokor batzuk emango dizkigu Zalla bizigarriagoa eraikitzen lagunduko digun Aurrerapen dokumnetua idazten hasteko.

### / MUGIKORTASUNA ETA AZPIEGITURAK:

Mugikortasuna da gure herri, hiri eta lurraldeen oinarria. Zallaren kasuan, trenak konexio lanak egiten ditu, eta, aldi berean, udalerrriak aurkitzen duen oztopo handienetako bat da. Zallak hesi hori kentzeko premia argia duela aipatzen da, trena lurperatzea Zallarentzat aukera garrantzitsua izango litzatekeela azpimarratzen da, trenbidearen bi aldeak lotzeko eta udalerrriaren kohesio soziala hobetzeko, irtenbide orokor bat behar dela adierazten da.

Garraio publikoaren zerbitzuari dagokionez, adierazten da tren-zerbitzua eta autobus-zerbitzua ez direla nahikoak, maiztasun gutxi dutela, eta ez dagoela gaueko garraio publikoaren zerbitzurik.

Tren-zerbitzua oso kalitate txarrekoa dela azpimarratzen da, bai ibilbideen iraupenagatik, bai zerbitzuaren kalitateagatik (matxurak, atzerapenak, maiztasun baxuak...). Aipatzen da trenak ez duela izan beharko lukeen konektore funtzioa betetzen. Tren geltokien kokapenari dagokionez, positiboki baloratzen dira. Tren-zerbitzuarekin jarraituz, trenak herria zatitzen duela da ideia nagusia. Ideia horrekin batera, trenbide-pasaguneak puntu kritikotzat jotzen dira, eta horietako batzuek, Ibarraoak kasu, ez dituztela gutxienezko segurtasun-bermeak betetzen adierazten da. Gaur egun, Arangurenen trenbide-pasaguneak kentzeko plan bat dagoela mahai gaineratzen da, baina proposamenak trenbidearen bi aldeen arteko lotura ahalbidetuko ez duen horma bat eraikitzea jasotzen duela adierazten da, eta proposatzen den planteamenduak Aranguren bitan banatzen jarraituko duela uste da. Aipatu da, plan horrek Arangurenen lurpeko oinezkoentzako pasabide bat ere aurreikusten duela, eta hori puntu kritikoa izan daitekeela genero-ikuspuntutik, sor dezakeen segurtasunik ezaren sententzioagatik.

Autobus-zerbitzuari dagokionez, Zalla eskualdeko zentru gisa bultzatu beharko litzatekeela aipatzen da, eskuladeari Karrantzarekin eta Bilborekin lotura eskainiz. Termibus intremodal txiki bat sortzeko ideia aipatzen da, Zalla eskualdeko erreferente moduan kokatzeko. Dauden geroakuei dagokionez, Eroskiren eremuan geltoki berri bat sortzea interesgarria litzatekeela jasotzen da. Zalla bus bat martxan jartzeko ideia ere atera da, zentrotik urrunen dauden gunetara zerbitzu emateko ibilbide desberdinekin eta urrunen dauden zerbitzu publikoak konektatzen laguntzeko, hala nola haurtzaindegia, kiroldegia, anbulatorioa, merkataria, Otxaran auzoa, Herrera ingurua, Venta al Sol gunea...


Oinezkoen mugikortasunari dagokionez, sarearen osotasun falta azpimarratzen da, loturarik gabeko puntu asko agertzen dira. Herritarrak kezkatzen dituen gaietako bat udalerriko zonaldeen arteko oinezkoen lotura falta da, batez ere Mimetiz eta Arangurengo herrigune nagusien artekoa. Mimetizko zentroaren eta kiroldegia kokatzen den kirol-eremuaren arteko konexiorik eza ere aipatzen da.

Oinezkoentzako guneei dagokienez, positibotzat jotzen da udaletxearen eremuaren oinezkotzea, nahiz eta adierazten den aldaketa horrek beste eremu batzuetan ibilgailuen zirkulazioa pilotzea eragin duela, hala nola Artabeko bidegurutzean, eta puntu hori arazo eta intseguritate puntu bihurtu da. Irisgarritasunari dagokionez, zenbait kaleren irisgarritasuniki eta mantentze-lanik eza aipatu da, besteak beste, Hermanos Maristas kalearena. Ideia orokor gisa, oinezkoen mugikortasunari dagokionez, oinezkoentzako gune gehiago sortzea aipatzen da, herritar guztientzako ibilbide seguru, konektatu eta irisgarriak sortuz, pasabide zabal eta oztoporik gabekoak.

Bidegorriei dagokienez, egun daudenak positiboki baloratu dira, baina puntu batzuetan lotura falta dela adierazi da, adibidez Mimetiz eta Aranguren arteko tartean. Atzeko bidegorria ez dela mantentzen aipatu da, utzita dagoel. Bidegorria Balmasedarekin lotzeko eta bidegorri gehiago sortzeko beharraz ere hitz egin da. Oinezkoen eta bizikletaren arteko elkarbizitzari dagokionez, Bidegorria oinezkoentzako bide gisa erabiltzen dela adierazten da, eta gatazkak sortzen dira bizikletaz eta oinez doazen pertsonen artean. Bizikletaren erabilerari dagokionez, txirrindularien eta autoen arteko elkarbizitza da identifikatzen den beste arazoetako bat, bazterbide segururik ez dagoelako. Bizikleta publikoko sistema bat ezartzeko aukeraren ideia agertzen da.

Motordun ibilgailu pribatuaren erabilerari dagokionez, Zallako kokalekua eta autobia kontuan hartuta, ibilgailu pribatu bidezko kanpo-konexioa ona dela adierazten da. Sopuertara doan errepideak udalerraren antolamendua asko baldintzatzen duela adierazten da, autobidetik ("Herradura"-tik "Castillo de la piedra"-ra) beste konexio bat egitea proposatzen da, ibilgailuak herriaren erdigunetik igaro ez daitezen. Barneko sareari dagokionez, hirigunean, kiroldegi-eremuan eta ikastetxeetako irteeretan aparkalekurik ez dagoela adierazi da. Ideia horrekin lottuta, aparkaleku faltak, Lanzagorta kalea gaizki erabiltzen dakarrela aipatzen da, autoak bigarren ilaran aparkatuz etab.

Ideia nagusi modura jasotzen da, udalerrian konexio ona egon dadin, kalitatezko mugikortasun-sare bat egotea beharrezkoa dela, oinezkoen eskala lehenetsiz. Barne-konektibitatea eta kanpo-konexioa Aurrerapenari begira landu beharrek bi gai direla ondorioztatu da. Udalerrri barruan, funtsezkoa da ekipamendu eta zerbitzu guztiek sarbide erraza izatea, bai eta auzo guztiek ere, nahiz eta oso periferikoak edo isolatuak izan; berariaz aipatzen da Mimetiz eta Aranguren arteko lotura sendotzeko eta trenak banatzen dituen eremuen kohesioa bilatzeko beharra.



## **/ ESPAZIO PUBLIKOA ETA EKIPAMENDUAK:**

Zerbitzuei dagokienez, herritarrek zer hobetu asko ikusten dute espazio publikoari, berdeguneei eta ekipamenduei dagokienez; gaur egungoak, dirudienez, ez dira nahikoak edo mantenu faltan daude. Ekipamenduei dagokienez, bi gai nagusi azaltzen dira, lehena, zuzkidura-erakin batzuk berri eta handitzeko beharra, eta, bigarrenik, zerbitzu berriak sortzekoa.

Gaur egungo kirol-ekipamendua zaharkitua eta txikia dela diote herritarrek, eta handitzea proposatzen da. Kirol-aukera gehiago sortzeko aukera ematen duten kirol-espazio gehiago eskatzen dira.

Osasun-ekipamenduei dagokienez, adierazi da anbulatorioa txiki geratu dela, eta kanpoan estalitako espazio baten beharra duela. Bestalde, aipatu da Zallan, eskualdeari zerbitzua emango dion, eskualdeko ospitale berri bat egingo dela. Zerbitzu berri hau ezartzea positibotzat jotzen da, eta, gainera, espazio publiko berri bat sortzeko eta Karmengo auzoko eremua berritzeko aukera gisa ikusten da.

Hezkuntza-ekipamenduei dagokienez, institutu berri bat eraikitzeke proposamen bat dagoela aipatu da, baina jarduketaren bideragarritasunari buruzko zalantzak sortu dira, garapen hori uholde-arriskuko eremu batean aurreikusten baitzen. Ikastetxeei dagokienez, adierazten da eskola-inguruneak ez direla oso seguruak, motordun trafikoa dela eta.

Gaur egungo kultur ekipamenduak positiboki baloratzen dira, baina horietako batzuk optimizatu eta balioetsi daitezkeela aipatzen da, hala nola: Antzokia, Udaletxe zaharra, Arangurengo kultur etxea eta Arangurengo hiltegi zaharra.

Honako ekipamendu edo zerbitzu hauen falta sumatzen da: haurrentzat eta nerabeentzat jarduerak sortzea ahalbidetzen duten lokal eta espazio gehiago; musika-eskola bat; eguneko zentro bat; adineko jendearentzako jarduerak. Era berean, lonja hutsak zerbitzu berriak hartzeko potentziala duten espazioak diren ideia jasotzen da, eta gaur egun gutxiegi erabiltzen diren etxabeei irteera emateko irtenbide moduan plazaratzen da ideia hau

Ekipamendu-sare bat funtsezkoa da hiri-eredu irisgarri baterako; beraz, dauden ekipamenduak konektatzeko beharra agertzen da, bai hemen zein mugikortasunaren atalean. Hiri-bilbea, kaleak dira espazio publikoaren sarea osatzen dutenak. Espazio publikoa oinezkoentzat da, pertsonarentzat, eta edonorentzat atsegina eta irisgarria izan behar du. Gainera, saretzeko eta igarobiderako balio behar du, baina baita elkartzeko eta egoteko ere. Udal Plaza topaketara gonbidatzen ez duen espazio moduan aurkezten da, eta berau indarberritu beharko litzatekela plazaratzen da, beste izaera bat izan beharko lukeela planteatzen da, topagune moduan funtziona dezan. Estrategia batzuk planteatzen dira, hala nola: plaza aparkalekura zabaltzea, plazan zerbitzuak jartzea...

Berdeguneei dagokienez. Herritarren iritziz, Artebizkarreko egungo parkeak, Udaletxeko lorategiak eta Ezkien Plazatxoa atseginak dira. Artebizkarra haur-parkeak erabilera handia duela aipatzen da, ostalaritza-lokaletatik gertu egonagatik. Ezkien plazatxoa bestalde, adineko jendeak erabiltzen du.

## / PAISAIA ETA LANDA EREMUAK:

Zallak lurzoru urbanizaezin gisa katalogatutako azalera handia dauka, eta natura esku eskura dauka, natura-ondare handia baitu. Landa-eremuen garapenari dagokionez, adierazi da gune askok landa-izaera galduta dutela, eta gutxi dira lehen sektoretik bizi diren pertsonak.

Paisaiari eta naturari dagokienez indargune gisa baloratzen dira, La Brena eta Bolumburu eremuak. Bolumburuko aisialdi-eremuari dagokionez, aipatu da zonaldea masifikatuta dagoela, zikinkeria-arazoa dagoela eta sartzeko eta aparkatzeko arazoak daudela. Brenako eremuari dagokionez, aukera gune bat dela adierazi da, eta Brenako eraikina mendiko aterpe bihurtzeko aukera mahaigineratu da.

Era positiboan baloratu den beste baliabide natural bat Kadagua ibaia izan da, ibaia hobeto aprobetxatzeko, Kadagua ibaia eta haren erriberak mantentzea, zaintzea eta garbitzea funtsezkoa dela aipatu da. Honi lotuta, aipatu da interesgarria litzatekeela ibaiaren ibilguan aisialdirako eta espazioak sortzea, baita bainurako guneak ere.

Mahaigaineratuenez, ibaiaren ondoko baratzeen eremua aukera askoko gunea da, eta gaur egun jende askok paseatzeko erabiltzen du. Eremuak gaur egun dituen gabeziak identifikatzen dira (bide estuak, irisgarritasun arazoak, iturri falta, bankuak...). Aipatu da eremua potentzial handiko eremua dela, paisaia- eta kultura-balioa handia duelako, eta aisialdirako eremu berri bat izateko aukerak ikusten dira.

Landa eremuaz hitz egiterakoa, baratzeen gaia azpimarratzen da, nekazaritzako lanabesetarako eraikinak eraikitzea ahalbidetzea aipatzen da, baina modu ordenatuan, gaur egun txabolen estetikak (txatarra, uralita...) eta antolatu gabeko garapenak landa-paisaiari kalte handia egiten baitiote. Gai horri lotuta, hiri-baratzeen gaia jarri da mahai gainean, sustatu beharreko proiektu interesgarri gisa.

Landa-auzoetarako sarbideei dagokionez, adierazi da horiek lotzen dituzten errepideak eta bideak hobetu behar direla, horietan oinezkoen segurtasuna hobetuz. Adibidez, Sollanora, Herrerara eta Arangurenara joateko bideek ez dute espaloirik eta ez dira seguruak, ezta Gabeo eta Arzabe arteko bidea ere. Aretxaga auzoarekin ere lotura falta dago. Segurtasunaren gaiak gain, aipatu da bigarren mailako eta auzoetako bideak ez direla behar bezala mantentzen (zikinkeria, lokatza, adarrak...).



Ingurune naturalean dauden oinezkoen ibilbideei dagokienez, modu positiboan baloratu dira, naturaz eta mendiaz gozatzeko aukera ematen duten ibilbideen eskaintza handia dagoela adierazten da. Hala ere, bideen erabilera eta baimenik gabeko itxiera kontrolatu behar dela adierazi da, bide publikoak pribatizatzeko aukerarik eman gabe.

Hiri-paisaia ere paisaia da, eta horregatik honek ere, arreta behar du. Ahultasun gisa jasotzen da Zallak dituen trenbide-pasaguneen kopurua, eta horrek udalerraren paisaian eragin nabarmena duela aipatzen da. Hiriguneetatik hurbilago dauden eta sarbide hobeak duten espazio/parke berriak sortzeko beharra ere adierazi da.

## **/ ETXEBIZITZA:**

Etxebizitzaren gaia ez da berria, baina bai egungo erronketako bat, Zallan eta gainerako udalerrri eta hirietan. Ez dago zenbakietan sartu beharrik, etxebizitzaren egungo diagnostikoa agerikoa baita: etxebizitza-parke zaharra, irisgarritasun-falta nabarmena, hiri-konfigurazioa desorekatua, etxe hutsen kopurua altua, eta etxebizitzaren prezioa oso altua, besteak beste. Gai horiek guztiek modu batera edo bestera eragiten digute herritar guztiei. Irisgarritasunari buruzko gaiak mugikortasun arazoak dituzten pertsonei, adinekoei eta gurditxoak duten pertsonei eragiten dien gehien, etxebizitzaren prezioak eta merkatuak, ordea, arazo kolektiboa izan arren, eragin zuzenagoa dute gazteengan eta pertsona zahurgarriengan. Egoera horren aurrean, Zallako herritarrek honako hau adierazi dute:

Lehenik eta behin, adierazten da gazteek zailtasunak dituztela etxebizitza eskuratzeko, bai erosteko, bai alokatzeko. Alokairuaren batez besteko prezioa 500-600 euro ingurukoa da, eta prezio altua da, gazteen botere ekonomikoa kontuan hartuta. Gazteen emantzipazioarako etxebizitza-eredu berririk eza aipatzen da.

Bizitegi-berroneratzeari buruz ere hitz egin da, eta, horrela, irisgarritasun unibertsalaren gaiari heldu zaio. Zallan, etxebizitza askok ez dute igogailurik, eta, horren ondorioz, adineko biztanleriaren zati handi batek muga handiak ditu etxetik irteteko. Arazo garrantzitsua da honako eremu hauetan: El Carmen, San Miguel, Lanzagorta... Adinekoen gaiari lotuta, tutoretzapeko apartamentuen edo adinekoentzako zuzkidura-etxebizitzaren beharraz hitz egiten da, irisgarritasun unibertsalaz gozatu ahal izateko eta espazioa jende gehiagorekin partekatu ahal izateko, horrela bakardadearen gaiari ere erantzuna emanez.

Zallan etxebizitza berrien falat nabaria dela adierazi da, etxebizitza gehienak zaharrak dira eta eraberritzeko beharra du. Gainera, azken eraikuntzak duela 15 urtekoak direla, etxebizitza berri eskuragarria falta dela adierazi da. Zallan etxebizitza-parke publikorik ez dagoela aipatzen da, eta azpimarratzen da alokairu sozialeko etxebizitzaren parke publiko bat sortzea funtsezkoa dela, bai eta kolektibo zaurgarrientzako alokairu eskaintza eskuragarria izatea ere.

Azkenik, Zalla herriak bizitegi-erabilerako hirigintza-garapen berriak sortzeko orduan dituen baldintzak eta mugak aipatu dir, eta hauek kontuan hartu behar direla aipatu da. Alde batetik, ibaia eta urak har dezakeen eremua, eta beste alde batetik trenbidea. Garapenak erreka ingurutik aldendu eta magalean egitea aztertzea proposatzen da, aipatutako muga horiek gainditzeko nahiarekin.



## / JARDUERA EKONOMIKOAK:

Zallak, inguruko herrien erdigunea den aldetik, industria-gune indartsua eta zerbitzu-sare ona ditu. Autobiarekiko lotura abantaila eta aukera gisa ikusten da zerbitzu berriak sortzeko orduan.

Zallako industria-garapenari dagokionez, enpresen behar zehatzei erantzungo dieten industria-eremuak planifikatu behar direla adierazi da; poligono tipoek ez dute balio, industria-lurzoru bakantea aurreikusi behar da empresa berriak garatzeko, baina tipologia malgurako aukera emanek. Gaur egun enpresek behar desberdinak dituztela adierazten da (bulegoak, logistika-zentroak...), eta plangintzak alderdi hori kontuan hartu behar duela azpimarratzen da.

Industriari dagokionez, herritarren kezka nagusietako bat degradatutako lurzoru industrialak berreskuratzea da, udalerrian aztarna industrial handia baitago: Los Plomos (La Herrera), Glefaran... Batzuek erabilera industrialak izan dezakete, baina beste batzuek birmoldaketa bat behar dute, erabilera aldaketa bat. Adibidez, Los Plomos inguruan naturaren ikasgela bat egitea planteatzen da. Balorazio positiboa egin da industria eraikin izandako eraikin batzuk ekipamendu publiko bihurtu direlako, adibidez Arangurengo La Guata eraikina.

Denboran atzera eginez, orain dea hamarkadak, baso-uztiaketa Zallako jarduera ekonomikorik indartsuenetako bat izan zela aipatzen da, eta gaineratu da jarduera hori garatzeko lur onak daudela. Hala ere, gaur egun jarduera horri berriz ekitea ez dela planteatzen aipatu da, paper-fabrika ixtearekin batera eman zela amaitutzat sektore horren garapena. Aipatu da sektorea bultzatzea biomasa-proiektu bat egon zela, baina ez zen aurrera atera.

Adierazienez, azken 30 urteetan funtzionatu duten enpresa bakarrak elikaduraren, zerbitzuen eta garraioaren sektoreari lotutakoak izan dira. Zerbitzuen sektorea udalerriko motor ekonomikoa da. Udalerriko merkataritza-jarduera indartsua eta kohesionatua dela aipatzen da, eta udalerrian bertan erosten direla lehen premiako produktuak. Hala ere, Bilborekiko hurbiltasuna dela eta, saltoki txikiak mehatxupear daude, batetik, merkataritza-gune handiengatik, gaur egun aisialdirako gune gisa erabiltzen baitira; eta, bestetik, online erosketengatik eta banatzaile handiengatik. Aipatzen den beste arazo bat eskualdearen garapenari buruzko kontzientziario eskasa da.





Zerbitzuei dagokionez, gaur egun funtzionatzen duen jarduera nagusa ostalaritza jarduera dela aipatzen da. Bestalde, merkataritza-lokal asko hutsik daudela adierazi da, batetik, lokal horien tipologiagatik (garaje gisa aurreikusitako 20 m<sup>2</sup>-ko lokalak) eta, bestetik, alokairuen prezioagatik.

## **/ HIRIGINTZA GARAPENAK**

Kokapen geografiko ona eta Bilborekiko hurbiltasuna, baita biztanleria gaztearen hazkundera ere, indargunetzat hartzen dira hirigintza-garapenak egiteko orduan. Hala ere, kontuan hartu behar dira orografia, trenbidea eta urak har ditzakeen eremuak, horiek baitira planteatzen diren garapenak baldintzatuko dituzten faktore nagusiak.

Erabileren araberako hirigintza-garapen posibleak aztertuz gero, kirol-zuzkidurei dagokienez premia argia dagoela ikusiko da, espazio publikoaren eta ekipamenduen eremuan aipatu den bezala.

Industrialdeak eta jarduera ekonomikoko eremu berriak sortu aurretik, daudenak indartu, sendotu eta bete egin behar direla aipatzen da. Industria-lurzoruen deskontaminazioa, Aurrerapenari begira landu beharreko gaietako bat da, eremu horiek biziberritzeko eta erabilera berriak garatzeko beharra nabaria baita.

Bizitegi-garapenak bestalde, etxebizitza eta hiri eredua birpentsatzeko aukera gisa ikusten dira: etxebizitza irigarriak, alokairu sozialekoak, adineko pertsonentzako etxebizitza komunitarioak, beraz horietan ere fokua jarri beharra ikusten da.

Hirigintza-garapen guztietan, konektibitateak, mugikortasunak eta irigarritasunak funtsezko faktoreak izan behar dute. Hirigintza-garapen berri orok oinezkoentzako zein bizikletentzako konexioa eta garraio publikorako sarbidea izan beharko ditu. Horretaz gain, erabileren mixtura beharrezko jotzen da.



